

## Galdera

Zergatik egiten dugu komunztadura singularrean kasu hauetan?

- a) Liburuak ekartzea ahaztu zaio / Liburuak ekartzea ahaztu zaizkio\*
- b) Futbolean jokatzeko eta abestea gustatzen zaio / Futbolean jokatzeko eta abestea gustatzen zaizkio\*

Kasu ezberdinak dira biak, eta banan-banan ikusiko ditugu.

1/ Lehen esaldi-parean, nahasbidea eragin lezake **liburuak** sintagma pluralean agertzeak, baina, esaldi horretan, **ahaztu** aditzaren subjektua **liburuak ekartzea** da (hots, perpaus oso *singularra*). Hortaz, komunztadura singularrean egiten da. Eguneroko hitzetan esanda: ez zaizkio *liburuak* ahaztu (gauza asko), *liburuak ekartzea* (gauza bakarra) baino.

Konparatu esaldi hauek:

- Pastelak asko gustatzen ZAIZKIT. Baina pastelak jatea gustatzen ZAIT, ez egitea.
- Ekarri DITUT liburuak, baina autoan ahaztu ZAIZKIT (liburuak); baina ez ZAIT ahaztu (liburuak) forratzea.

2/ Bigarren esaldi-parean, juntaturari buruzko komunztaduraz ari gara (hots, **eta** juntagailuarekin egindakoaz). Hona hemen zer dioen [Euskara Batuaren Eskuliburuak](#) gai honetaz (geuk nabarmendu dugu **gorriz** zure kasu zehatza):

### komunztadura juntaduran: sing./plur.?

Emendiozko juntadurak —*eta* juntagailuaren bidez eginikoak, alegia— aditza pluraleko komunztadura hartzerantz behartzen du oro har:

Frantsesa eta ingelesa ikasi nahi *ditu*. Liburu bat eta aldizkari bat erosi *nituen*.

Badira, ordea, juntadura pluraltzat hartzen ez den zenbait kasu:

- **Juntatzen direnak perpausak izatea**: Gu *estutzeak* eta *ernegatzeak* hutsa balio *du*.
- Juntatzen direnak izen abstraktuak izatea (orduan bi moldeak —singularra eta plurala— zilegi dira): Euskal literaturaren ospe eta entzutea ez *da* behar adinakoa / ez *dira* behar *adinakoak*.
- Juntagaiak sinonimoak edo erreferente berekoak izatea (emendio-asmorik gabekoak edo multzoa adierazten dutenak izatea, alegia), eta ñabardura zein, bi moldeak zilegi izan litezke: Hemen erabili *den/diren* {arreta eta zehaztasuna}. Bazkaria geuk egingo dugu, zuek {ogia eta ardoa} ekarri behar *duzue/dituzue*, besterik ez.
- Elipsi-jokoa eta intonazioa tarteko, deskribapenetan eta gisakoetan nahieran: 16 cm inguru luzeko gorputza [duena] eta 20 cm-ko isats oratzailea *duena* / 16 cm inguru luzeko gorputza eta 20 cm-ko isats oratzailea *dituena*.

Hortaz, bi perpaus juntatzen ditugunean, singularra erabiltzen da euskaraz.